

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
26	1.629	70	529
positibo berri	hildako EAEn	positibo berri	hildako
3.221	3	7.027	
positibo guztira*	UCIn EAEn	positibo guztira	

\*Hernanin 80 Astigarragan 24

# 'Gozamen egarriz eta erantzukidetasunez' kanpaina, ur-festaren alternatiba moduan



Kanpaina alternatiboko 'Gozamen egarriz' botilak eta maskarillak.

Herriko festak modu ezberdinean antolatuko dira aurten eta hainbat ekitaldi bertan-behera gelditu behar izan dira, pandemia egoeratik. Horregatik, aurten ur-festarik egongo ez denez, kanpaina alternatiboa sortu dute gazteentzat.

### URUMEA FESTAK

Leitza, Goizueta, Areso eta Arano Gizarte Zerbitzuetako prebentzio zerbitzuak, berdintasun zerbitzuak eta Gozamen programak *Gozamen egarriz eta erantzukidetasunez* kanpaina jarri dute abian. Izan ere, COVID-19ak eragindako egoera eta aldaketek, herriko festak eta hainbat ekitaldi bertan behera uztea eragin du, horien artean hain arrakastatsua zen ur festa ere.

Gozamenezko gauean eta udaran orokorrean gaztetxoek bizitzen dituzten egoerak oso garrantzitsuak izan ohi dira eta aurten tamalez, ezingo dituzte espermentatu. Ez behintzat, diote, «ohiko moduan». Testuinguru hori kontutan hartuz, ur festa ordezkatzeko asmoz eta

«lagun artean elkartzeko aukera badagoela gogoratuz», eskualdeko 12 eta 17 urte bitarteko 243 gaztetxoei gozamenarekin proposamena luzatu diete kanpainako arduradunek.

### «Bizipen berriak eta ekintza gozagarriak»

Sexualitatearekin eta erantzukidetasunarekin zerikusia duen material bat bidali zaie gutun bidez etxetara, bizipen berriak eta ekintza gozagarriak arduraz aurrera eramatea posible dela gogoraraziz.

Batetik, esku morea txertatua daukan maskara bidez «gu zainduz besteak zaintzen ditugu» ideia eta berdintasuna eta errespetua aldarrikapena egin nahi izan da. Bestetik, osasun-garriak eta gozagarriak diren ekintzak egin ahal izateko *Go-*

*zamen egarriz* leloa daukan botila eta hiru ideia adierazi nahi izan dira: «Zure burua eta zure gorputza maitatzea zure sexualitatea errespetatu eta bizitzeko osagai garrantzitsuena da eta besteekiko errespetua ere garrantzen da, sexualitatearen organo nagusia burmuina da eta azkenik, Sexualitateak ugaltzeko funtzioa izateaz gain, gozatzeko eta komunikatzeko helburuak ere baditu. Eta modu askotara goza daiteke: begiradekin, laztanekin, hitz politekin, musuekin, besarkadekin, kilimekin, olerki batekin, abesti batekin, irribarre batekin, lurrin batekin... Sentitu eta zoriontsu izan!».

### Argazkiak partekatzeraz animatu dituzte gazte denak

*Gozamen egarriz eta erantzukidetasunez* kanpainako arduradunek, gazteak animatu dituzte maskarilla eta botilarekin «gozamenezko ekintza bat» egiten ari diren argazki bat partekatzera sare sozialetan. @Gozamenez kontua Instagram eta Facebook bidez etiketatzen dutenak sari baten zozketan sartuko dira. **K**

## Gozamen egarriz eta erantzukidetasunez

Kaixo gazte! Ez al duzu uste aurtengoa urte xeble bezain aberasgarria izaten ari dela? Institutua itxita, etxerako lanak eta azterketak online bidez... Asko dira bizitza tokatu zaizkigun egoerak. Baina traba handia zirudienak aukera bat eskaini digu gozaten ditugun gauzak baloratzeko.

Badakizu ere bertan behera geratu direla udaran ospatzen diren hainbat eta hainbat ekintza, festak esate baterako. Penaz jaso dugu berria, baina itzuliko dira aurrerago, egoerak ahalbidetzen duen momentuan. Eta honekin lotuta, esan nahi dizugu aurten ezingo dugula ur festa aurrera eramanez. Gozamenezko gauak hurrengo urtera arte itxaron beharko du. Gero arte esaten diogu beraz ur festari.

Dena den, aukera bikaina dugu sexualitatearekin eta gozamenarekin zerikusia duten gauzak, ekintzak eta bizipen berriak sentitzeko. Aldi berean, arduraz jokatu dezakegu ere erakutsi dezakegu. Honekin lotuta, bi dira egiten dizkizugun opariak: maskara morea eta *gozamen egarriz* botila.

### Maskara morea zergatik?

Gu zainduz besteak zaintzen ditugulako: Ez-ohiko uda bada ere, aukera dugu elkartzeko, poztasunerako eta dibertsiorako uneak partekatzeko. Baina, ez dugu ahaztu behar momentu honetan ekintza horiek bakarrik direla posible maskara era egokian erabiltzen badugu.

Berdintasuna eta errespetua aldarrikatzeko: COVID-19ak argi erakutsi digun bezala, oso

garrantzitsuak dira zaintza lanak eta etxeko lanak. Ardurak partekatzea eta aisialdia errespetuz bizitzeak lagunduko digu emakume eta gizonezkoen arteko berdintasun txertoa topatzeko.

### Gozamen egarriz botila zergatik?

Ur festan busti ezin garenez, osasun-garriak diren ekintzak egiteko: maite dituzunekin, zure buruarekin bakarrik, lagunekin, familiarekin... Baldintza bakarra egiten duzun horrez gozatzeko eta aldi berean, erantzukidetasunez jokatzeko da.

*Gozamen egarriz!* leloa erabiltzen dugu, hiru mezu nagusi helarazteko: Sexualitatearen oinarria zu zeu zara eta jaiotzetik daukazu zurekin, ez da gaztaroan sortzen den zerbait eta hil arte mantenduko duzu. Beraz, zure burua eta zure gorputza maitatzea zure sexualitatea errespetatu eta bizitzeko osagai garrantzitsuena da. Zure burua maitatzen duzunean, besteena ere errespetatzen duzu.

Sexualitatearen organo nagusia burmuina da. Beraz, pentsatzen eta sentitzen duzunak zure sexualitatea gidatuko du.

Sexualitatearen funtzioa ez da bakarrik ugaltzea. Argi izan, gizakiok modu askotara gozaten dugu: begiradekin, laztanekin, hitz politekin, musuekin, besarkadekin, kilimekin, olerki batekin, abesti batekin, irribarre batekin, lurrin batekin... Sentitu eta zoriontsu izan!

Gozatu udara, zentzuz eta erantzukidetasunez jokatzuz!

**XXXVIII. BURUZ BURUKO ERREMONTA TXAPELKETA**  
**KUTXABANK SARI NAGUSIA** Abuztuaren 6

1. PARTIDA / 16:00-etan

**JUANENEA vs ZUBIRI**

2. PARTIDA / 17:00-etan

**ETXARRI vs URRIZA**  
**BARRENETXEA IV vs AIZPURU III**

3. PARTIDA / 18:00-etan

**LARRAÑAGA vs SEGUROLA**

**HERNANIARREK**  
**5 €**

**GAUR** Bero handia egingo du eta hego-haizea egongo da. Goizean giro eguzkitsua espero dugu, baina egunaren eguerditik aurrera bero-hodeiak garatuz joango dira. **Min.17° / Max.31°**

**BIHAR** Goizean tenperatura azkar igoko da. Haizea aldatzen joango da eta arratsaldean bero-hodeiak ugartuko dira. Egunaren bigarren partean zaparrada trumoiatsuak bota ditzake. **Min.22° / Max.31°**

**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**

**LAGUNTZAILEK**

**Hernaniko Udala**

**Astigarragako Udala**

**Dobera Euskara Elkartea**

**GOZUEKODU UDALA**

**ARANOKO UDALA**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

**ELKARTEA**

**GOZUEKODU UDALA**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

**ELKARTEA**



Herri Eskolan mantentze eta hobekuntza lanak egingo dituzte abuztuan.

## Herri Eskolan hobekuntzak egingo dira, 55.000 euroko aurrekontuarekin

Herri eskolako zuzendaritza taldeak hobekuntza lanak proposatu ditu eta Udalak, udako oporrak aprobetxatuz, abuztuan egingo ditu lan horiek.

**ASTIGARRAGA HERRI ESKOLA**

Udako oporretan konpontze eta mantentze lan ugari egiteko aprobetxatzen dute herriko elkarte edo eskoletako eraikin askotan. Abuztua hilabete lasaia izaten da eta horregatik, Astigarragako Herri Eskolakoek instalakuntzetan zenbait moldaketa egitea erabaki dute.

Udalak 55.000 euro bideratu

ditu mantentze eta hobekuntza lanak egiteko. Horrela, aurrekontu honekin asko dira egingo dituzten aldaketak. Informatikako ikasgela gela txikietan banatuko da (3 gela eta 2 biltegi), eta ordenagailuak liburutegian jarriko dira. Gainera, haur hezkuntzako bi geletan leihoen ordez ateak jarriko dira. Horrela, patio txikira irteera zuzena izango dute eskolako txikienek.

Bestalde, Herri Eskolako pasabideetan LED argiak jarriko dira eta azkenik, zenbait margoketa-lan egingo dira eskolako geletan, instalakuntzen itxura hobetzeko.

**Higienea mantentzeko aldaketak egingo dituzte**

Hobekuntza lan horiez gain, bestelako aldaketak ere egingo dituzte. Izan ere, Udalak jarritako aurrekontu honekin, komunitateko kaniletan sentsoreak jarriko dira eskolan. Horrela, irakasle eta ikasleek ez dute eskuekin ikutzeko beharrik izango. **K**

## Zubiri goizuetarrak ez du aukerarik txapelketako hurrengo fasera pasatzeko

Etzi aurkeztuko da Kutxabank torneoko azken fasea, eta Barrenetxea gaur binaka Etxarriekin Urriza eta Aizpuru Illgarrenaren aurka ariko da.

**HERNANI ERREMONTEA**

Kutxabank Torneoaren lehenengo fasearen ligaxka bihar itxiko da Galarretan Juanenea eta Zubiri goizuetarraren arteko eta Larrañaga eta Seguroaren arteko partiduekin. Egia esan Larrañaga eta Juanenea gertu dute finaleko sailkapena eta Zubirik ezinezkoa eta Seguroak askoz ere zailagoa dute asteartean ate ire-

kiekin jokatu ziren bi partiduen ondoren.

Zubirik 30-18 galdu zuen Aizpuru III.aren aurka eta Seguroak 30-26 Zalduaren aurka. Honela, Zaldua kanpoan dago jadanik eta talde horretan Larrañagak 27 tanto egitearekin nahikoa du larunbateko finalera sailkatzeko. Seguroak irabazi eta 26an edo gutxiagoan utzi behar du aurkaria sailkatu nahi badu.

Beste taldean Juanenea eta Aizpuru dute aukera. Zubiri aukerarik gabe dago eta Juanenea 24 tanto egin behar ditu derrigorez, ez bada iristen Aizpuru III.a sailkatu litzateke larunbaterako finalera B maila honetan.

**Biharko jaialdian hiru partida**

Biharko jaialdian hiru partiduko jokatu dira. Juanenea-Zubirik lehenengoan jokatu dute eta Larrañaga-Seguroak hirugarrenengoan. Bigarren partida Etxarri eta Barrenetxea IV.a hernaniarrak, Urriza eta Aizpuru III.a izango dituzte aurkari. **K**

## Udalekuak egingo dira abuztuan

Bertan behera gelditu ziren udako ekintza guztiak. Hala ere, Udalaren baimenarekin udalekuak egitea erabaki du Xaguxar aisialdi elkarteak.

**ASTIGARRAGA UDALEKUAK**

Koronabirusa dela eta udaleku irekiak bertan behera uztea ez, baina osasun neurri batzuekin egitea erabaki zuen osasun sailak. Hala ere, kasu positibo gehiago detektatu ziren momentuan, udalekuak suspendi-

tzeko agindua egon zen.

Orain, ordea, malgutasuna eman ditete udaleku beraien ardurapenak eta erantzukizuna hauena izanik, udalekuak antolatuko. Horregatik, Xaguxar aisialdi elkarteak udaleku irekiak egitea erabaki du, abuztuko hilabete osoan zehar.

**Bi txanda izango dira**

Udalekuak bi astetan banatu dituzte. Lehenengo abuztuaren 3tik 14ra bitartean egingo da eta bigarrena hilaren 17tik 28ra. Azaldu dute, egoera dela eta talde «txikiagoak eta finkoagoak» egingo dituztela, eta segurtasun neurriak hartuko dituztela. **K**

## Film japoniarra gaur gauean, Atsegindegan

Udako zinemaldia dela eta, bigarren pelikularen proiektzioa egingo da, 22:00etan.

**HERNANI ZINEA**

Udako zinemaldia atzo hasi zen Atsegindegan. Guztira hiru pelikula proiektatuko dira, munduko hiru herrialde ezberdinetan egin direnak. Atzo Islandia izan zen protagonista, *Hrútar* filmarekin, eta gaur Japonen txanda da. Gaueko 22:00etan hasiko da proiektzioa, Atsegindegan. Naomi Kawasek zuzendutako *Mogari no mori* filma izango da pantailan; euskerara itzulita, «basoaren dolua» esan nahi du.

Atzokoaren antzera, ekoizpen honek ere arrakasta izan du. Izan ere, 2007an Epaimahaiaren Sari Nagusia jaso zuen, Cannesen.

**Aurkikuntza bidaia bat**

Aurkikuntza bidaia bat da, zaharren egoitzan bizi den gizon batek bertako zaintzaileetako batekin, basoan barrena doazela, elkarrekin egingo dutena.

Shigeki zaharretxe txiki batean bizi da, eroso eta pozik. Machikok, bertako langileetako batek, beste paziente batzuei baino arreta gehiago eskaintzen dio Shigekiri. Hala ere, Machikok sekretupean bizi du bere oinazea semea galtzeagatik. Baina Shigekiren urtebetetze ospakizuna eta gero, Machikok mendira paseatzera eramatea erabakiko du eta konfidentzia ugari izango dituzte bidaia horretan.

Bihar izango da Udako zinemaldiaren azken eguna. *Kovasiakjuttu* (Punk Sindromea) da izenburua eta finlandiar pelikula honetan osasun mentalaren ispiluaren beste aldean gertatzen dena jasotzen da. **K**

## Pertseidak ikusteko sarrerak agortu dira

**HERNANI CHILLIDA-LEKU**

'Uda Hernanin' egitarauarekin, izarren behaketa egiteko aukera egongo da datorren asteazkenean Chillida-Lekun. 19:00etan irekiko dira ateak, eta behaketa 23:00 eta 03:00ak bitartean izango da. Hala ere, arduradunek sarrerak agortu egin direla adierazi dute.

## Kultur jardueretarako diru laguntzak

**HERNANI DIRU-LAGUNTZAK**

Kultur jardueretarako dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago. Deialdi honen helburua da entitateei kultur sustapen eta zabal-kunde arloan urteko programak edo jarduerak zehatzak garatzeko eta egiteko lehiaketa erregimenaren bidezko dirulaguntzak emateko modua arautzea. Hernaniko Udaleko Kultura sailari dagokio diru-laguntzak kudeatzea. Eskaera Udaletxeko beheko solairuan egin daiteke, astelehenetik ostiralera, 09:00 - 13:00 bitartean. Horretarako, alde aurretik hitzordua hartu behar da hurrengo telefono zenbakian: 943 337 000.

## IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

**AKELENEA**  
Ertegia - XIX Mendeko Sagardotegian

**Koldo eta Ana**

**Entsalada**  
**Kostila patatekin**  
**Postrea**  
**Sagardo botila**

**22€**  
**Larunbatean**  
**enkarguz**

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333